**BILBAO RIA 2000.** Atzo alkartu zan administrazino batzordea

# Miribillako geltokia egiteko 9,09 milioi euro jarri ditue

## Auzo horretatik urigunera 3 minutuan heltzeko aukerea izango da



XOUSE SIMAL

Administrazino kontseiluaren batzarraren ostean egin zituan Iñaki Azkuna alkateak adierazpenak.

Kepa Ugarte | BILBO

Miribillan Renfeko tren geltokia egiteko 9,09 milioi euro (1.513 milioi pezeta) emongo ditu Bilbao Ria 2000k. Egitasmoa gauzatzeko txostena idazten jarraitzea eta auzune horretako Konpentsazino Batzordearekin eukitako negoziazinoak bukatutzat emotea erabagi eban atzo erakunde horretako administrazino kontseiluak.

Iñaki Azkuna Bilboko alkateak aitatu ebanez, «Torreurizar auzoan eta Larraskitu etorbidean iada bizi diranak batuta, 20.000 biztanle hartuko ditu, hurrengo bost urteetan, Miribilla auzuneak». Etxebizitzen % 66 babes ofizialekoak izango dirala ganeratu eban. Bertan ipini gura daben Renfeko geltoki barritik urigunera «hiru minutuan» heltzeko aukerea egongo dala dinoe Bilbao Ria 2000ko arduradunek. Izan be, Cantalojas kaleko tunelaren barruan egongo da tren geltokia eta Konpentsazino Batzordearen eskuetan dagoan merkataritza zentroaren zatian eukiko dau sarrerea. Geltokia datorren urtean egiten hasi ahal izateko, obren esleipena aurten egin gura dabela aitortu eban Azkunak.

### Ia 82 milioi euro hainbat egitasmotarako

Hainbat egitasmo gauzatzeko 81,28 milioi euro (13.523 milioi pezeta inbertitzea onartu eban atzo Bilbao Ria 2000ko administrazino batzordeak. Hain zuzen be, 2001an baino % 95,6 gehiago, 6.913 milioi pezeta jarri zituen igaz. Diru guzti horretatik, 9.863 milioi pezeta Bilborako dira eta beste 3.660 milioi pezeta Barakaldorako.

Besteak beste, Balzola enpresa kontratzea erabagi dabe Abandoibarra etorbideko bigarren zatiaren urbanizazino lanak hasteko. Gaur egun, kontainer terminala dagoan eremuan, plataforma bat prestatzen hasiko dira, tranbia barria horren ganean joateko. Guztira, 575.255,48 euro (95.714.458 pezeta) inbertiduko dabe lan horreek egiteko.

Horrezaz ganera, alkarlanerako hitzarmena sinatu dabe Bilbogas enpresarekin, Abandoibarran eta Ametzolan gas natural sarea ipinteko prozedura arautzeko. Toki horreetan egingo diran urbanizazino lanetan, urian beharrezkoak diran zerbitzuak jartzea be sartzen da Bilbao Ria 2000ko arduradunen hitzetan.

Barakaldori jagokonez, Lasesarre futbol zelai barria egiteko obrak zuzentzeko Eduardo Arroyo arkitektoa hartu dabe, 390.657,87 euroen (65 milioi pezeta) truke. Arkitekto gazteei emoten deutsien Europan arkitektura saria irabazi dau honek. Barakaldoko kiroldegi barriaren egitasmoa gauzatzeko txostena, barriz, Jorge Muntañola eta Alvaro Perez Amezaga arkitektuek egingo dabe.

ABANDOIBARRA

## Aldaketen txostena aurkeztea eskatu deutso Aldundiari Azkunak

Bizkaiko Foru Aldundiak Abandoibarrako proiektuaren ganean aldaketak egiteko agertu dauen asmoa dala eta, Josu Bergara aldun nagusiak txostena hurrengo bi hilabetetan aurkeztea espero dauela adierazo eban atzo Iñaki Azkuna Bilboko alkateak. Izan be, Cesar Pelli arkitektuak idatzitako txostenak egitasmo horretan aldaketak egitea eskatzen dau, Aldundiko zerbitzuak egongo diran torrera joango diranek zirkulazino arazoak ez eukiteko. Halandabe, «Aldundiak ez dau erabagirik hartu horren ganean, Pellirena aurretiazko txostena dalako», Azkunak adierazo ebanez. Aldundian onartu ostean, Bilbao Ria 2000n txostena «ahal dan lasterren» aurkezteko konpromisoa hartu dau Josu Bergarak, Azkunak aitatu ebanez.

LABURREAN

BILBO

### Bizilagunek autoa Plaza Barrian iztea proposatu dau Batasunak

Autoa aparketako Zazpikaleetako bizilagunek dituen arazoak ikusita, Batasunak proposamena egingo deutso udalbatzarrari TAO txartela daukienek Plaza Barriko lur azpiko aparkalekua debalde erabili daiezan. Horrezaz ganera, Udalak hiru hiletan auzo horretarako plangintza berezia egiteko eskatzen da Batasunaren mozinoan, bai eta aparkaleku publikoak egiteko lekua egokitzea Atxuriko eskolaren alboan dagoen taxi geltokian.

PORTUGALETE

### Milioi erdi euro hilerrian tanatorioa egiteko

Hilerrian tanatorioa egiteko obrak agindu ditu Portugaleteko Udalak. Mikel Cabieces alkateak jakin eragin dauenez, hile bi barru hasiko dira beharrak, eta tanatorioaz ganera gorpuak errausteko labea be ipiniko dabe bertan. Inbertsinoa 515.000 eurokoa izango da, eta 25 urtez enpresa pribatu batek zerbitzua kudeatu ostean, Udalarentzat izango dira hilerriko azpiegitura horreek. Portugaleteko herritarrek 115 euro ordainduko dabe etxekoen gorpuak erraustearen truke, eta kanpotarrek, barriz, 309 euro.

GALDAKAO

### Hamabostaldi kulturala egingo da nagusientzat

Udalaren Ongizate sailak hainbat ekintza antolatu ditu hilaren 18an hasi eta martxora arte, herriko erretiratuentzat. Danetara, 6.000 euro gastauko ditue «herriko nagusiei ondo pasatzeaz ganera euren burua trebatzeko aukerea eskaintzeko», antolatzaileek azaldu dabenez. Ekitaldien artean, herria ezagutzeko txangoak nabarmendu ditue.

### Gazteek erabilitako lokalak zarratuko ditue

Udalak Urreta kalean herriko gazteek erabiltzen daben lokal bat zarratu egingo dau horren kontra ehun salaketatik gora ipini dituelako inguruko bizilagunek. Agintariek euren egoerea argitzeko exijituko deutsie udalerrian 42 lokaletik gora okupau dituen gazteei. Zaratea eta lohikeria dira, Udalaren berbetan, lokal horren inguruan sortzen diran arazorik larrienak.

BARAKALDOKO

### Beurko auzoko eraikinen egoera kaskarragaitik, 140 familia etxez aldatu behar izan ditue

Erredakzinoa |

Barakaldoko Beurko auzoneko etxebizitzen egoera kaskarra dala eta, bertoko 141 familiak etxe barri batean sartzeko lanak azkarragotu behar izan ditu Larcovi-ACR enpresak. Konpainia horretako arduradunek azaldu ebenez, auzoko eraikinetako beheko solairuetan dagozan 111 etxebizitza eta goiko solairutan dagozan beste 26 dira kaltetuak dagozanak. Biri izan ezik, jabe guztiei emon deutsie exte barri bat. Horrezaz ganera, sareak jartzen hasi dira etxebizitzen goiko aldetik zerozer erortzea eragozteko. Izan be, oinezkoen segurtasuna bermatu gura dabe.

80 milioi euro inbertiduko ditue Beurko auzunea barriztatzeko. Lan honeek bertako 750 familiatan eukiko dabe eragina. Guztira, aluminosiak jota dagozan 90 eraikin botako ditue 1.185 etxebizitza barri egiteko. Gaur egun, lehenengo fasean dago egitasmoa. Hain zuzen be, 30 eraikin bota eta 250 etxebizitza barri egingo dabe.

ALONDEGIA

### Lau solairuko aparkalekuan tokia hartzeko eskaerea egin dabe 600 lagunek baino gehiagok

Erredakzinoa |

Alondategiko aparkalekuetan tokia hartzeko bulegoko arduradunek atzo jakin eragin ebenez, iada 600 lagun egin dabe bertan kotxea utzi ahal izateko eskaerea. Ganera, bertara hurbildu diran pertsonen % 30 bina toki eskatu dituela kontutan hartuta, 789 dira aparketako eskatutako tokiak guztira. Eskaerak egiteko epea, martiaren 28ra arte baino ez da egongo zabalik. Bulegoa zabaldu eta egun gitxitako epean lagun asko emon dabelako izena.

Alondegiko kultur eta aisialdi gune barrian lau solairutako aparkalekua egingo dabe. Estacionamientos Alhondigak Bizkaia plazan bulegoa zabaldu ebanetik 2000 lagun hurbildu dira bertara aparketako tokien ganean informainoa eskatzeko. Horreetatik 607 lagunek kotzea izteko tokia hartzeko eskaerea egin dabe iada. Martiaren 18a artean, gehiago izango dirala dinoe arduradunek.